

Merkataritza Zuzenbidearen eguneratzea eta eraberritzea: kapital-sozietateen Legea

(Update and Modification of the Trade Law: Company and Corporations Law)

IRACULIS ARREGUI, Nerea

Euskal Herriko Unibertsitatea
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak.
Enpresa Zuzenbidea Saila
Sarriena Auzoa, z/g
48940 Leioa
nerea.iraculis@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 20; 131-134]

Sarrera eguna: 2010.11.12
Onarpen eguna: 2010.12.15

Merkataritza-legeriak izandako aldaketan ondorioz sortu diren koordinaziorik ezak, inperfekzioak eta hutsuneak gainditzeko helburuarekin, Kapital-Sozietateen Lege berria dugu. Lege horren bitartez, Espainiako kapital-sozietateen legerian bereizita zegoen arauketa tradizionala hausten da, sozietateei buruzko araudi guztia testu bakarrean bateratuz. Kapital-sozietateen mota desberdinen artean dagoen funtsezko batasuna azpimarratu nahi da. Modu horretan, kapital-sozietate guztietarako modu orokorrean, arlo desberdinen arauketa egiten da, eta kapitulu edo atal bakoitzaren barruan sozietate bakoitzaren berezitasunak jasotzen dira, beste testu batzuetara igortzea saihestuz.

Giltza-Hitzak: Testu bategina. Berrantolaketa sistematikoa. Planteamendu berritzailea. Araudiaren bilaketa erraza. Sozietate bakoitzaren espezialitateak.

La nueva Ley de Sociedades de Capital nace con el objetivo de superar la falta de coordinación, imperfecciones y carencias producidas como consecuencia de las sucesivas modificaciones realizadas en la legislación mercantil. Gracias a la nueva Ley, se rompe con la tradicional regulación de las sociedades de capital que se encontraba dispersa en la legislación española, refundiendo en un único texto toda la regulación sobre sociedades. Se pretende remarcar la unidad fundamental que existen entre los diversos tipos de sociedades de capital. De esta forma, se lleva a cabo una reglamentación de los distintos ámbitos en general para todas las sociedades de capital y, dentro de cada capítulo o sección, se recogen las especificidades de cada sociedad, evitando la remisión a otros textos.

Palabras Clave: Texto refundido. Reorganización sistemática. Planteamiento innovador. Búsqueda sencilla del reglamento. Especialidades de cada sociedad.

La nouvelle Loi sur les Sociétés de Capital vise à surmonter le manque de coordination, les imperfections et les lacunes découlant des modifications successives du droit commercial. La nouvelle loi annule les règles traditionnelles relatives aux sociétés de capital, dispersées dans la législation espagnole, en refundant en un seul texte toutes les règles applicables aux sociétés. L'objectif est de mettre en relief l'unité fondamentale existante entre les différents types de sociétés de capital, en procédant à la réglementation des différents domaines généraux pour toutes les sociétés de capital, avec, au sein de chaque chapitre ou section, l'énumération des spécificités de chaque société, en évitant le renvoi à d'autres textes.

Mots-Clés : Texte refundu. Réorganisation systématique. Approche novatrice. Recherche simple du règlement. Spécialités de chaque société.



Kapital-Sozietateen Lege berriak (1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital-Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duenak), irailaren 1ean indarrean sartu zenak, berrikuntza garrantzitsua dakar gure Merkataritza Zuzenbiderako. Horri esker, amaitu dira mota desberdinetako sozietateak koordinatzeko zailtasunak, bai eta Espainiako merkataritza- eta industria-egiturarako funtsezkoa den arlo horretan lehen zeuden akatsak ere. Horrela, Espainiako sozietateen zuzenbidea bateratu egin da, eta, hori testu bakar batean jaso denez, guztia batera aztertu ahal izango da. Horrek garrantzi berezia izango du Europar Batasuna arauak izapidetzen ari den garai honetan, hala nola Europako Sozietate Pribatuaren Araudia, arau horiek eragin nabarmena izango baitute gure sozietate-motetan.

Testu Bategin hori idaztean, bete da Merkataritza Sozietateen Egitura Aldaketei buruzko 3/2009 Legearen, apirilaren 3koaren, amaierako zazpigarren xedapenean jasotako agindua. Xedapen horrek ahalmena ematen dio gobernuari kapital-sozietateak arautzen dituzten lege guztiak testu bakar batean biltzeko. Horrela, arautu, argitu eta bateratu egin dira Merkataritzako Kodeak akziokako sozietate komanditarioentzat ezartzen zituen arauak, sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen legeak, eta Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legearen, uztailaren 28koaren, X. titulua, sozietate anonimo kotizatuei buruzkoa. Ondorioz, honako bi testu hauetan jasota geratzen da sozietate kotizatuei buruzko araudia: Testu Bategin honetan, sozietateei dagozkien alderdi ekonomikoei dagokiona, eta Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legean, uztailaren 28koan, mota horretako sozietateen finantza-alderdiaren araudiari dagokiona.

Kapital-sozietateak, sozietate personalistengandik berezita, indargabetutako 1951ko (sozietate anonimoak) eta 1953ko (sozietate mugatuak) legeekin agertu ziren, eta komanditarioak eta kotizatuak, berriz, 1989an eta 2003an, hurrenez hurren. Sozietate-mota bakoitzaren araudia berezita mantendu da, mota bakoitzeko sozietateek beren arauak betetzen baitzituzten. Gainera, ia ez zegoen zuzenbide komunik sozietate anonimoen eta mugatuen artean. Ondorioz, legezko testu bananduen dualtasuna mantendu izan da Espainiako sozietate-legediaren ezaugarri gisa. Horregatik, garrantzi handiko lana da horiek legezko testu bakar batean bildu izana. Gehien erabiltzen diren bi mota horietako sozietateei aplikatu dakiekeen araudia batu da testu horretan, eta horrela, Sozietate Mugatuen Legeak ez dauka etengabe Sozietate Anonimoen Legea aipatu beharrik,

lehen egiten zuen eran, administratzaileen erantzukizun-erregimena, urteko kontuak, elkarrekiko partaidetza edo beste gai batzuk aztertzerakoan. Arrazoizkoa zen Sozietate Mugatuen Legeak Sozietate Anonimoen Legea aipatzea, azken hori 1989koa zelako, eta lehena, berriz, 1995koa. Ez zegoen testu guztia besterik gabe kopiatu beharrik, eta ez zegoen alderdi horiek beste era batean antolatzeke beharrik ere, egokitzapen txikiak egitea nahikoa baitzen.

Hori indarrean jartzeari dagokionez, aurreikuspen orokor bat eta beste aurreikuspen berezi bat daude. Aurreikuspen berezi hori dagokionez, honakoari egiten dio erreferentzia: debekatuta dago sozietate anonimo kotizatuetako estatutuetan akziodun berak eman ditzakeen gehieneko botoak mugatzea. Testu Bategineko 515. artikulua ezartzen du deuseztatu egiten direla boto-eskubidea mugatzen duten klausulak, eta artikulua hori ez da indarrean sartuko 2011ko uztailaren 1era arte. Salbuespen hori izan ezik, Testu Bategina indarrean sartu zen 2010eko irailaren 1ean, soilik hiru hilabeteko *vacatio legis* batekin.

Kapital-Sozietateen Lege berriaren meritu handiena izan da testu bakar bat osatzea hainbat testutatik abiatuta. Testu horiek, desberdinak baziren ere, kapital-sozietateetako arazo komunei egiten zieten erreferentzia; hala nola, eratzeko eta erregistratzeko moduari, sozietate-ekarpenei, Batzar Orokorrari, urteko kontuei, sozietate-estatutuak aldatzeari, desgiteari eta likidazioari eta abarri. Testu horretan, garbitasun handiagoz azaldu dira agindu batzuk (kendu egin dira anbiguitasuna edo interpretazio-zalantzak eragiten zituzten terminoak), eta eskema sistematiko berri bat sortu da horiek errazago irakurri eta erabili ahal izateko; gainera, terminologia bateratu du, eta era komun eta bakarrean arautu ditu kapital-sozietateetan tratatu desberdinak behar ez duten tituluak: Batzar Orokorraren eskumenak, sozietateko estatutuak aldatzea, eta sozietateak desgitea eta likidatzea. Testu Bateginak ekarri duen bateratzea beharrezkoa zen, batez ere, aipatu berri ditugun alderdi horiei zegokienez; izan ere, desberdintasun handiak zeuden sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen araudien artean. Erantzukizun mugatuko sozietateetarako ezarritakoak hartu dira oinarri. Horrela, desagerrarazi egin dira dagoeneko indargabetuta dauden Sozietate Anonimoen Legearen eta Sozietate Mugatuen Legearen arteko aipamenak eta esamolde desberdinak, arauak aplikatzea zailago egiten baitzuten horiek askotan.

Oro har, bete da kapital-sozietateen araudi banandua gainditzeko helburua,

funtsezko aldaketarik egin gabe; aurreikusten da etorkizunean egingo direla aldaketa handiagoak Merkataritza Sozietateen Kode berri batean. Horrela, bategite hori asmo handiko prozesu zabalago batean sartzen da, eta, beraz, adi egon beharko dugu, etorkizunean etorriko baitira berrikuntzak sozietateen esparruan; izan ere, Testu Bategin hau aldi baterakoa da. Hala eta guztiz ere, hori onartu izateak segurtasun juridikoaren printzipioa era eraginkorragoan aplikatzen lagunduko du, araudia errazago interpretatzeko eta aplikatzeko aukera emango du, eta, azken batean, araudiak kalitate hobea izango du.

Testu Bategina luzea izan arren (14 titulu, 528 artikulua, 7 xedapen gehigarri eta azken xedapen 2), hurrenkera egokiagoa lortu du, eta horrek bateratutako arauen interpretazioa erraztuko du. Kapital-Sozietateen Legearen Titulu bakoitzak eduki zehatza arautzen du eta atal bakoitzaren amaieran erantzukizun sozietatearen eta sozietate anonimoaren berezitasunak jasotzen ditu.

Lehenengo Tituluan kapital-sozietateei buruzko arau orokorrak jasotzen dira (izendapena, nazionalitatea eta egoitza). Eskuarki, erantzukizun mugatuko sozietatearen eta sozietate anonimoaren arteko desberdintasunik aipatzen ez den arren, bi sozietateek eratzeko behar duten gutxieneko kapital kopurua borobiltzen da (60.000 euro eta 3.000 euro hurrenez hurren). Tituluaren bukaeran, berriz, bazkide bakarreko sozietateen erregulazio bateratua jasotzen da. Sozietate-taldeak aipatzen badira ere, kontzeptuak ez du funtsezko aldaketarik izan, horrek esan nahi du legegileak gerorako utzi duela sozietate-taldeen premiazkoa duten erregulazioa.

Kapital-sozietateen eraketa Bigarren Tituluan jasotzen da. Atal horretan eraketa-eskriturak jaso behar dituen aipamenak eta Merkataritzako Erregistroko inskripzioaren betebeharra garatzen dira. Testu Bategineko 24. eta 39. artikuluek aldaketa esanguratsu bat ekarri dute nortasun juridikoari dagokionean, zeren eta pertsonalitate juridikoa eskritura egiletsi egiten denean sortuko baita eta ez dokumentua erregistratzen denean. Era berean, Bigarren Tituluak eratze bidean dagoen sozietateak eta sozietatearen irregulartasunak izan ditzaketen ondorio juridikoak aipatzen ditu. *In fine* sozietate anonimoaren jarraipeneko (segidako) eraketaren baldintza bereziak (41. artikulutik 55. artikulura) eta sozietateek eratzeko izan ditzaketen deuseztapen arrazoiak jasotzen dira.

Bazkideen eta akziodunek egiten dituzten diruzko eta ez-diruzko ekarpenen erregulazioa Hirugarren Tituluan jasotzen da, sozietate

anonimoarena (67. artikulutik 72. artikulura) eta erantzukizun mugatuko sozietatearena desberdinduz. Laugarren Tituluak, aldiz, partizipazioak eta akzioak bereizten ditu libre eskualdatzeko duten erraztasuna edo zailtasuna dela medio. Azken atal honen amaieran partizipazioen eta akzioen eskurapen eratorriak dituen desberdintasunak aipatzen dira (140 artikulutik 148 artikulura).

Testu Bategineko Bosgarren Tituluak ekarri du berrikuntzarik esanguratsuena, zeren eta batzar nagusiari dagozkion ahalmen zehatzak jasotzen baititu (160. artikulua). Sozietate Anonimoen Legeak ez zituen horiek zehazten. Testu Bateginak, aldiz, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen araua jarraitu du eta horren irizpide modernoak bereganatu ditu kapital-sozietateen batzar nagusiaren ahalmenak zehazterakoan. Horrekin batera Bosgarren Titulu honetan gai hauek ere aztertzen dira: batzar nagusi motak (unibertsalak edonon izango du elkarterik), deialdia, asistentzia, ordezkariak, hedatu beharreko informazioa, batzar-eraketa, akordioak hartzeko gehiengoak eta batzarraren akta. Halaber, batzar nagusiaren akordioak aurkatzeko prozedura batu egin da, Erantzukizun Mugatuko Legean zegoen igorpena kenduz (204 artikulutik 208 artikulura).

Kapital-sozietateen ordezkariak eta kudeaketa organoaren erregulazioa Seigarren Tituluan garatzen da. Administrazioaileak izateko baldintza subjektiboak, izendapen-inskripzioa, ordezkariak, ardura eta erantzukizuna Tituluaren bost ataletan banaturik daude. Erantzukizun Mugatuko Sozietateen eta Sozietate Anonimoen administrazio organoaren erregulazioa eta horren aurkako akzioak tartekatze prozedurak batu badira ere, administrazioaileen betebeharrak fiduziarioak edo konfiantzazko ardurak eskatzen dituen obligazioak legegileak gerorako utzi ditu. Dena den, gure ustez, horren premian gaude batez ere sozietatea eta administrazioaileen artean interes gatazka sortzen denean. Administrazio kontseiluaren araudia eta Akziozko Sozietate Komanditarioen administrazio organoaren erregimen zehatza Seigarren Tituluaren amaieran jasotzen dira (242 artikulutik 252 artikulura).

Zazpigarren Tituluak agintzen du kapital-sozietate guztietako administrazioaileek urteko kontuak (balantzea, galera eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketak, likidezia-egoera eta memoria), kudeaketa txostena eta emaitzen banaketa burutu behar dituztela, ekitaldi ekonomikoa ixten denetik hurrengo hiru hilabetetara (253 artikulua). Arlo horretan aldaketa esanguratsurik eman ez arren, betebeharrak hori zabaldu egin da kapital-sozietate guztietara

salbuespenik gabe. Beraz, orain kontu-ikuskariak sozietate guztien urteko kontuak eta kudeaketa txostena, kasuan kasuko, ikuskatu beharko dituzte.

Legearen Zortzigarren Tituluak kapital-sozietateen barne araudiaren (estatutuen) aldaketak garatzen ditu. Bederatzigarren Tituluak, berriz, bazkideen banantzea eta kanporatzea batzen ditu. Gai horietan guztietan aldaketa nabarmenik ez da eman, baina Hamargarren Tituluak jasotzen duen araudiak funtsezko aldaketa ekarri du. Izan ere azken atal horretan, 2010eko Testu Bateginak Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen erregulazioaren irizpideak bereganatu ditu. Egitura hau da: lehenik, kapital-sozietateen desegitea jasotzen da hainbat irizpideren arabera (bidezko arrazoia dela medio, legearen edo sozietatearen barne araudiaren arau-haustea eman delako edo batzar nagusiak horrela erabaki duelako), eta bigarrenik, sozietateen kitapen prozedura garatzen da, ondarearen banaketari eta sozietateen iraungitzeari bere biziko garrantzia emanez (371 artikulutik 400 artikulura).

Gainerako tituluek Sozietate Zuzenbidearen hainbat instituzio garatzen dituzte. Batzuk berriagoak besteak baino. Hamaikagarren Tituluak, adibidez, sozietate anonimoek eta akziozko sozietate komanditarioek jaulki ditzaketan *obligazioak* erregulatzen ditu. Hamabigarrenak, aldiz, erantzukizun mugatuko sozietateetatik eratorritako *sozietate enpresa berria* delakoaren ezaugarriak garatzen ditu, eta Hamahirugarren Tituluak *Europar sozietate anonimo* delakoa eratze-baldintzak jasotzen ditu (bat-egitea, holding, eraldaketa).

Azkenik, 2010eko Testu Bategineko Hamalagarren Tituluak atxikitu egiten du bigarren mailako balore-merkatuetan (burtsan) kotizatzen duten sozietate anonimoen erregulazioa (495 artikulutik 528 artikulura). Araudiak bereganatu egin du sozietate horiek Balore Merkatuari buruzko Legean zuten erregulazioa, Sozietate Zuzenbideari dagokionean. Besteak beste, gai hauek jorratzen ditu: akzioen erregulazioa, batzar nagusiaren barne araudia eta horren publizitatea, administrazio kontseiluaren barne araudia, boto eskubideari buruzko akordio parasozialak, sozietateari buruzko informazio berezia hedatzeari buruzko argibideak eta abar. Baina Testu Bateginak kanpoan utzi ditu inbertsiogileak babesteko arauak eta merkatuaren funtzionamendu onerako jarraibideak, arau horiek Balore Merkatuari buruzko Legean geratzen baitira. Beraz, sozietate anonimo kotizatuek Kapital-Sozietateen Testu Bategina betetzeaz gain,

Balore Merkatuari buruzko Legea ere bete beharko dute.

Kapital-Sozietateen Legearen Testu Bateginak behin behineko izaera duelakoan gaude. Izan ere, sozietate anonimo kotizatuek araudi zehatzagoa behar dute, balore-merkatuaren gardentasuna eta konfiantza giroa babesteko. Halaber, sozietate-taldeak arautu gabe daude, erregulatuta duten bakarra urteko kontu bateratuen betebeharra baita. Hori dela eta, aztertu dugun Testu Bategina ontzat hartzen badugu ere, merkataritza sozietate guztien erregulazio bateratu baten beharrean gaude; agian, Merkataritza Sozietateen Kode baten beharrean gaude.